



## Bertso plazak, hutsik

**Bertsolaritza mugimendu osoari eragin dio egoera berriak: bertsozaleei, bertsolariei eta antolatzaileei, baita Bertsozale Elkarteari berari ere. Lehen ondorio nabarmenak sorkuntzan antzeman ditugu, bertso plaza etenda baitago martxoaren 13tik.**

Bat-batean eta azken puntua pentsatu gabe harrapatu gaitu koronabirusak. Jendarte osoari eta eremu guztietan eragin dio eta bertso plaza ez dago horretatik salbu. Ondorioak nabarmenak dira eta, zoritxarrez, oraindik neurtezinak.


### Galdutako plaza kopurua

Xenpelar Dokumentazio Zentroan biltzen ditugu urtero plazako datuak. 2019. urtean, Euskal Herrian 1.644 saio egin ziren, horietatik 1.215 bertsogintza ardatz zutenak; alegia, jaialdiak, lagunartekoak, plaza librekoak eta txapelketak edo sariketak deitzen ditugunak ziren multzo nagusia; beste 400 ekitalditik gora, berriz, bereziak, esperimentalak, hitzaldiak edo didaktikoak. Joan-etorri dezenterekin baina saio kopurua mantentzen da urtez urte; saio motak eta hilabeteak alda daitezke, bertsolari dantza ere izaten da, baina bertso saio kopurua mantendu egin da azken urteotan.

2020. urtean saioen gorakada txiki bat izan dugu urtearen lehen bi hilabeteetan. Urtarrila eta otsaila ez dira hilabete "osoan" izaten bertsolarien eta bertsozaleen agendetan, horregatik da pozgarria goranzko joera. Udaberriko hilabeteak are indartsuagoak izaten dira, udakoen pareko. Baina alarma egoerak bete-betean aldatu du panorama: martxoan 195 bat saio aurreikusten ziren eta 53 gauzatu dira. Hortik aurrera bertan behera gelditu da plaza. Iaz 122 saio egin ziren apirilean, 162 maiatzean, 179 ekainean eta 135 bueltan udako hiru hilabeteetan. Aurten, horiek utzitako hutsunea betetzeko Internet sarean egin diren bertso saioak salbu, ez da plazako ohiko bertso saio bat bera ere egin. Honek guztiak ondorio ekonomiko nabarmenak ditu: martxotik ekainera arte, 385.600 euro inguruko galerak eragin ditu.

Horietako zenbait, Lanku Kultur Zerbitzuek bideratutakoak dira: "Inondik inora espero ez genuen bat-bateko kolpea izan da", azaldu zuen Lankuko Marta Agirrezabalak apirilaren 7an

2019 eta 2020 bertso-saioak



Iturria: Xenpelar Dokumentazio Zentroa, 2019 urteko datuak eta 2020 urteko aurreikuspena.



**ANE LABAKA MAYOZ**  
Online, 2020-IV-17

Doinua: Nechoiz ez da senditzen

Aurrez prekario zen kultur mugimendua okertzeraz iritsi da konfinamendua patrikak hustuak baina eskaintza gizendua. Ni-tik harago beharko gu hasi josten gu-a gure bizibidea soldata, sostengua... ez da soilik debaldeko entretenimendua.

Bertsoa.eus atarian egoeraren inguruan ateratako erreporajea. Plazaren etetearen ondorioz, Lanku Kultur Zerbitzuak larrialdiko ERTE egoeran dago. "Lanku erabat lotuta dago plazari, lan jarduera nagusiena plaza da eta bat-batean geratu gara", gaineratu du.

Plazaren eten horrek eta aurrera begirako aurreikuspena egin ezin, ziurgabetasuna eragin du bertsoaritzaren inguruan lanean ari direnen artean. "Hasieratik ekonomikoki eta emozionalki, martxo eta apirila badirelako saio eta emanaldi asko pilatzen zaizkidan garaia, urte osoko aurreikuspenean zulo

modukoa da. Pixkanaka arnas luzeagoko sorkuntza batzuetarako tartea hartzen ari naiz", azaldu du Ane Labakak erreportaje berean. Hala aipatzen du Miren Amurizak ere: "Autonomia naiz: martxo, apirila eta maiatzerako jarduerak bertan behera, ekonomikoki zintzilik gelditzen garen sentsazioa daukagu. Kolektiboan oso gutxi hitz egin dugu alderdi ekonomikoaz, datorrenari aurre egiteko oso inportantea izango da. Garai zailak etorriko dira denontzat, baina aukera baliatu behar dugu sistemari aukera berriak bilatzeko. Galdera gehiago ditut erantzunak baino".



Plazaren etetearen ondorioz, Lanku Kultur Zerbitzuak larrialdiko ERTE egoeran dago.//XDZ

## Elkartean ere, eragin nabarmena

Bertsozale Elkartetik sortutako egitasmo ugari izan dira bertan behera gelditu edo atzeratu behar izan direnak. Batzuk nazio mailakoak izan dira eta, beste batzuk, lurraldeetakoak.

Euskal Herri mailan bertan behera geratu direnen artean Bertso Udalekuak dira nabarmentzekoak, aurre ez baita txandarik egongo. Bestetik, Eskolartekoa atzeratu egin da. Ikusteke dago Ahalduntze Bertso Eskolako eta Gizonezkoen Bertso Eskola Feministako ikasturteak amaitu ahal izango ditugun. Eta uda ikastaroerik dagokionez, Udako Euskal Unibertsitatekoa oraingoz bertan behera geratu da –agian, udazkenean egiteko aukerarekin-, eta ikusi beharko da ohiko UPV/EHUko Uda Ikastaroarekin ere zer gertatzen den.

Lurraldeei dagokionez, Araban Kuadrilla Artekora zalantzan dago, baina momentuz asmoa beranduago egitea da; barnetegiak bertan behera geratu dira. Bertsoa Bizi Gazte lehiaketa eta Oholtzapetik nola gauzatu aztertzen ari gara.

Bizkaian Batzar Nagusia atzeratu behar izan da eta oraindik ez da datarik zehaztu. Eskolartekoa eta BBK Sariketa atzeratu egin dira, baina hauen kasuan ere oraindik datak zehazteke daude. Udabarria Bertsoan Txapelketako sailkapen fasea printzipioz irailera atzeratu da, baina ikusiko da data horietan egiterik dagoen. Ikasturte amaierako ekitaldiei formatua aldatu zaie eta udal zein ikastetxeekin adostuta, formatu berrietan egingo dira, online. Bertan behera geratu diren proiektuak udako barnetegia,

Plazara ekimena, Sakontze Bertso Eskola eta Eskolatik Plazara izan dira.

Gipuzkoan Bertso Eskolen Eguna bertan behera geratu da. Ikasturte amaierako jaialdiei dagokienez, ez dira ohiko formatuan ospatuko, Bizkaian bezala, ikastetxeekin aukera ezberdinak lantzen ari gara.

Nafarroari dagokionez, Bertso Eskolen Eguna eta ikasturte bukaerako topaketak bertan behera geratu dira. Eskolartekoari dagokionez, udazkenera atzeratu da. Bardoak, aldiz, urrian egingo dira, baina datak zehaztu gabe daude oraindik.

Amaitzeko, Xiberoa, Lapurdi eta Baxenabarren orain arte bertan behera gelditu diren egitasmoak hiru topaketa, lau Bertsolari Tiki, Elebidunen ikasturte bukaerako Besta Eguna, Haizea Dator eta Bertso Eskolen Eguna dira. Bestetik, Hernandorena egun bateko sariketa bihurtuko da eta printzipioz ekainaren 6an egingo da Hendaia gaztetxean. Eskolartekoaren datak finkatzeke daude. Xilaba momentuz mantentzen da.

Pandemiak eta hari aurre egiteko neurriek kulturgintzan izan duten eragin nabarmena, halakoa izan dute bertsolaritzan: plazan, elkarteetan zein bertsolaritzan mugimendu osoan. Erresilientzia gaitasuna erakustera bultzatu gaitu krisiak.

### Lanketa berriak Bertsozale Elkarteetan

Hezkuntzan baldintza berrietara azkar moldatzeko ahalegina egin dugu. Aurreko urteetan, [www.bertsoikasgela.eus](http://www.bertsoikasgela.eus) prestatzen egindako lana oso baliagarria izan da azken hilabeteetan. Bertsozale Elkarteko irakasleek Internet bidez eskaini dituzte eskolak, eta modu honetan arituko dira ikasturtea amaitu arte.

Plazara begira, konfinamendu garaian bertsolaritzan mugimenduko hainbat eragilek Interneteko online saioak jarri dituzte martxan, eta Nafarroako Bertsozale Elkarteak ere *Konfinamenduko bertso saioak* egitasmoa abiatu du Nafarroako hainbat irratirekin elkarlanean. Epe luzeagorako erantzunak lantzen ari gara, Bertsozale Elkartearen eredu jarraituz eta elkarteko baliabideak erabiliz. Etorkizunean zer izango den garbi jakin gabe momentuko informazioarekin egin zaio aurre plazaren eteteari, eta konfinamendutik ateratzeko baldintzak ezagutu ahala berrikusiko ditugu hartutako erabakiak.

Momentuz, Bertsozale Elkarteak 45.000 euro bideratuko ditu plaza indartzeko eta bertsolarien zaurgarritasun egoera leuntzeko. Maiatzaren 2tik aurrera, Internet bidezko bertso plaza aberastuko dugu, garai honetarako Lankuren bidez hitzartuta zeuden zenbait saio sarean eskainita, eta bertsolariak proposamen ordainduak izatea bermatuta.

Maiatzaren 2tik aurrera hiru eduki eskainiko dira astero Bertsoa.eus atarian: *Plaza*, Lankutik lotuta zeuden saioak online egiteko aukera emango zaie antolatzaileei; *Bidaiak*, formatu eta gaitegi berritzailea duten saioak izango dira; eta *Potokastak*, bertsolari gazteei egindako elkarrizketak.

Hasieran batean Villabonako egoitzan egingo dira grabaketak, segurtasun neurri guztiak hartuta, baina denborarekin herriz herri egitea aurreikusten da; grabaketak segurtasun neurri guztiak hartuta egingo dira. *Plaza* sailean Lankuko saioak hartu dira abiapuntu eta kontratatuta zauden bertsolariak arituko dira. *Bidaiak* atalean herrialde, adin eta kanon ezberdineko bertsolariak eman nahi die ahotsa Bertsozale Elkarteak. Bertsolariaren batek edo talderen batek *Bidaiak* atalerako proposamenik izanez gero, [sustapena@bertsozale.eus](mailto:sustapena@bertsozale.eus) helbidean gustura asko jasoko ditugu proposamenak.

Bertsozale Elkarteak bere baliabideekin finantzatzeko dituen egitasmo hauek, baina bertsozaleek eta herritarrek izango dute ekarpena egiteko aukera kanal hauen bidez, maiatzaren 2tik aurrera: 688.886.935 telefono zenbakian Bizum bidez, eta Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko honako kontu edo IBAN kodean: ES16 3035 0060 43 0600042844 – BIC (Swift) kodea behar izanez gero, CLPEES2MXXX -.

### Etorkizunera begira

Batzar Nagusia egitear ginen, hain justu, alarma egoera ezarri zen asteburuan bertan. Elkartzeko baldintzak daudenean, hitzordua zehaztuko dugu eta jakinaraziko zaie bazkideei garaiz. Esan gabe doa, 2020rako aurreikusitako egitasmoa eta aurrekontuak berrikusi behar izan ditugula.

Bestalde, Bertsozale Elkarteko funtzionamenduari buruzko parte-hartze prozesua egitera gindoazen. Lanketaren epeak atzeratu ditu egoera berriak, baina egokitze ariketa hauek guztiek etorkizunerako oinarriak fintzen ere lagundu digute.



Potokastak, Plaza eta Bidaiak dira egitasmo berriak.//XDZ



## Puntu jarrita

**AINARA YEREGI ARANBURU**

Nik zu bikaina ikusten zaitut ordea, Joana! Perfekzio ideal hori eskuratu nahiak sarri bertsolaritzak dakartzan gozarena, jolasa, elkartasuna... Itzalpetzen dizkigu, baina guk, ohartu gabe, gainontzekoei hori sentiarazteko ahalmena dugu. Zu, emakume bertsolaria, oholta gaínean zure barne saboteatzailearekin gerran zabiltzan bitartean, ni, ikusle emakumea, gozarazten eta bertsolaritzarekin ber-maiteminduarazten ari nauzu. Jakin badakit, nik bikaintzat ditudan emakume bertsolari gehienek ez dutela euren burua hala ikusten. Neronek ere ez dut nire burua sekula "nahikoa ona" ikusi. Zuk eta Iratik antolatutako zenuten emakume topaketan argi ikusi zen; tamalez, bertaratutakoek autoexijentzia irmo eta gupidagabea zutela, eta zorionez, elkarri lagundu ahalko diogula.

Identifikatu genituen gure mugak zeintzuk diren; gizarte honek emakumeoi ezarri dizkigun oztupoak bertsolaritzaren arloan nola gorpuzten diren. Eta orain, zer egin? Mugitzen eta batzen hasi garen emakume bertsolari nafarrok lan desatsegin bat dugu aurretik, erreferenteak sortzearena. Eta nor izanen da erreferente, gu geu ez bagara? Espazio seguru bat sortzen hasiak gara, baina, honetaz gain, neska gazteek mota guztietako emakumeak ikusi beharko lituzkete oholta gaínean kantari. Umoretsuak, serioak, desafinatzen dutenak, ia entzuten ez zaienak, herritarak, auzotarrak, mikro aurrean geldirik egon ezin direnak... Eta honetaz guztiaz gain, gozatzen dutenak! Azken hau da zailena, gozatzea bera! Egun, gutxi baitira saio batean abestu ostean ase eta kontent geratzen diren emakumeak, baina, elkarren laguntzaz, oholta gure egin dezakegu.

Akatsa bertsolaritzaren parte dela ahaztuz, hura erabiltzen dugu gure sensazio txarra eta desegokitasuna justifikatzeko. Emozioak arrazionalizatzea ez da ona, eta kontziente izan behar dugu gure etengabeko segurtasun-eza inposatua dela. Ezin dugu gure kontra ditugun hamaika mekanismo mugatzaileek ito gaitzaten utzi. Beraz, korrontearen kontran igeri egingez, gure beldurrak eta kezkek alde batera utzi beharko ditugu eta oholta okupatu! Zenbat eta emakume gehiago, hobel!

Hala bada, badakizue, publiko aurrean bertsotan aritzen naizen hurrengoan, tratatzen banaiz, nahita egina izango da.


Amaia, zu inguru ez-oso-euskaldun bateko emakume gaztea izanik, nola bizi duzu bertsolaritza?

# Koplak

## Bazkideen datuak eguneratzen

Bazkideekin dugun harremana ahalik eta biziena izan dadin, etengabe berrikusi eta eguneratzen ditugu bazkideen datuak. Gainera, Bertsozalea berripaper honek ere digitalera jauzi egingo du ale honekin batera. Honenbestez, eskertuko dugu bertsozale@bertsozale.eus helbidera ondorengo datuak bidaltzea, eta, hala, gure datu basea egunean izango dugu: izen-abizenak, nortasun agiria, jaitotze data, helbidea, posta elektronikoa, telefono zenbakia eta IBAN kodea. Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak Datu Pertsonalak Babesteko legediak xedatzen duenari jarraituz jokatu du, eta zainduko ditu datuok.

## Poto-Finixa



## Bertsolaritzak ETB1 en jarraitzen du igandetan

Hitzetik Hortzerako denboraldia amaitu zen apirilaren hasieran. Etxean gauden bertsozaleen gozagarri, ordea, Euskal Telebistak eta Bertsozale Elkarteak telebistako bertso plazari eusteko proposamena ondu dugu, eta jada hiru astez bertsolaritzari lotutako eduki bereziak ikusi ditugu. Aste honetan ere izango da eskaintzarik: 1967tik 2013ra bitarteko bertsolari txapelketei erreposaoa egingo diegu.



Eskuragari [www.lanku.eus](http://www.lanku.eus) atarian

PUBLIZITATEA